

12/12

irizpena

Euskal Autonomia Erkidegoko
kutsadura akustikoaren
Dekretu Proiektuari Buruzkoa

Bilbon, 2012ko ekainaren 29an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzardea



*i*rizpena

12/12

I.- AURREKARIAK

2012ko ekainaren 5ean, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren idazkia jaso zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsaduraren Dekretu Proiektuari buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Dekretu Proiektuaren xedea kutsadura akustikoa prebenitzea, murriztea eta zaintzea da, kutsadurak gizakion osasunerako, ondasunetarako edo ingurumenerako ekar ditzakeen kalteak eta eragozpenak murrizteko, baita EAEko ingurumenaren kalitate akustikoa hobetzeko bideak ezartzeko ere. Gainera, eraikuntza berrien babes akustikorako beharrezko eskakizunak ere araupetu dira.

EAEko lurraldean dauden isurpen foku akustiko hauek dira Dekretuaren aplikazio-eremua:

- a. autonomia edo foru eskumeneko bide azpiegiturak eta trenbide eta portuetako azpiegiturak;b.
- b. lizentzia, baimen, aurretiazko jakinarazpen edo adierazpen arduratsuaren menpeko jarduerak eta obrak:
- c. hiri bideak;
- d. herri bideko obrak.

Berehala igorri zitzaien horren ale bat Batzordearen osoko bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia eman zitzaizen eta Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Arautegian ezarritakoaren arabera.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea 2012ko ekainaren 20an bildu zen, Irizpen Aurreproiekturako lehen proposamena eztabaidatzeko. Egun berean onetsi zen Irizpen Proiektu hau, EGABren osoko bilkurari helarazia 2012ko ekainaren 29an erabakia har dezan, eta aho batez onetsi da.

II.- EDUKIA

Honako hauek ditu Dekretu Proiektuari buruzko testuak: Zioen azalpena, hiru titulutan banaturiko 55 artikulua, sei xedapen gehigarri, bi iragankor, indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen; eta eranskinen multzo bat.

Zioen azalpena

12/12*j* Azaltzen denez, giroko zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruz 2002ko ekainaren 25ean Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2002/49/EE Zuzentarauak kutsadura akustikoaren gaineko ikuspegi berria ekarri zuen, eta berebiziko garrantzia hartu du giroko zaratak. Nahi ez den edo osasunerako kaltegarria den kanpoko zaratari deritzo giroko zarata, gizakiaren jarduerak eragindakoa, garraio bideek edo autoen, trenen eta hegazkinen trafikoak eta industri jardueren kokalekuek eragindako zarata barne. Eta ikuspegi hori Estatuko ordenamendu juridikora ekarri zen Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen, lege hori giroko zarataren ebaluazioaren eta kudeaketaren aldetik garatzen duen abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuaren eta legea zonifikazio akustikoaren, kalitate helburuen eta igorpen akustikoen aldetik garatu duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren bidez.

Dekretuak estatuko araudia garatu nahi du gure Erkidegoan, eta besteak beste, Autonomia Estatuaren 11.1. artikuluekin bat etorriz haren eskumenekoak diren azpiegituren inguruko kalitate akustikoa araupetu.

Bestela esanda, EA Eren eskumen propioei esparru juridikoa ematea da kontua kutsadura akustikoari dagokionez. Hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren otsailaren 27ko 3/1998 Legean (hain zuzen ere 32, 35 eta 37. artikuluetan) bildutako araudi autonomikoa eta estatu legeria osatzea ahalbidetzen duten alderdiak eta prozedurak zehaztu dira.

32. artikulua. – Zarata eta dardaren arloko ekintzak.

Atmosferako ingurugiroa zarata eta dardaren arloan babesteko helburuak betetzearren, ondoko ekintzak garatuko dira:

- a) *Ingurugiroko airearen kalitate-helburuak definitu eta ezartzea, zarata eta dardarengatik giza osasunarentzat, jendearen lasaitasunarentzat eta oro har ingurugiroarentzat kaltegarri diren eraginak saihestu, prebenitu edo murrizteko.*
- b) *Zarata- edo dardara-maila maximo onargarriak finkatzea garraiobide, industria, jarduera, instalazio, makina, aparatu eta elementuetarako eta, oro har, eragozpen-bide izan edo pertsonentzat, ondasunentzat edo ingurugiroarentzat edozein motatako arrisku-bide gerta daitezkeen zaratak edo dardarak eragiten dituen edozein egoeratarako.*
- c) *Hirigintzako planetan zarata edo dardarak dauden zonetan mugak edo zehaztapenak finkatzea.*
- d) *Zarata eta dardarekiko sentikor diren erabilpenak dituzten eraikinek bete beharreko isolamendu-baldintzak eta beste baldintza akustikoak definitzea.*
- e) *Zarata eta dardaren mailak ebaluatzea.*

12/12j

35. artikulua. – Neurriak hartu beharra.

Airea poluitzeko (zarata eta dardarazko poluzioa barne) edozein fokuren titularrek obligazioa dute maila onargarriak mantentzeko behar diren neurriak hartzeko, horretarako banakako errekerimendu edo loturako ekintza beharko ez delarik.

37. artikulua. – Eraikin eta lokaletako obrak.

- 1.– *Zarata edo dardara sortu edo jaso dezakeen obra edo jarduerarako edozein proiektuk eragin horien azterketa eduki beharko du.*
- 2.– *Obra guztiek geroko erabilpenean aplika daitezkeen poluzio akustikoaren mailak errespetatzeko behar diren zuzenketa-neurriak eduki behar dituzte.*
- 3.– *Udal-ordenantzek edozein jarduera ezartzen den lokaletan poluzio akustikoaren eragina murrizteko neurriak zorrotz ezarri behar dituzte.*

Alabaina, azaltzen den moduan, horrek ez du salbuesten zarataren mapa estrategikoak egin beharra izatetik estatuko legerian ezarritako azpiegituretan eta udalerrietan.

Eta kutsadura akustikoa arautzea konplexua eta dinamikoa denez gero (ez soilik arestian aipatutako estatuko araudian ezarria), Dekretua, era berean, eraikuntzaren arloan kutsadura akustikoa ulertzeko moduarekin osatuta eta koordinatuta dagoela ulertu behar da; zehazkiago, urriaren 19ko 1371/2007 Errege Dekretuan ezarritakoarekin. Errege Dekretu horren bidez, Eraikuntzaren Kode Teknikoa onetsi duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretua aldatu eta Eraikuntzaren Kode Teknikoaren "DB-HR Zarataren kontrako babesa" oinarrizko dokumentua onetsi da.

12/12j

Xedapenak

AURRETIAZKO TITULUA

I. KAPITULUA.- Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.
2. artikulua. Azpiegiturek eta jarduera berriak.
3. artikulua. Definizioak.
4. artikulua. EAEko organo erkideen eskumenak.
5. artikulua. Foru Aldundien eskumenak.
6. artikulua. Udalerrien eskumenak.
7. artikulua. Administrazio koordinazioa.
8. artikulua. Herritarrek informazioa jasotzeko duten eskubidea.

I. TITULUA. EBALUAZIO AKUSTIKOA: ZARATA MAPAK ETA EKINTZA PLANAK

I. KAPITULUA. Zarata mapak

10. artikulua. Zarata mapak nahitaez egin behar dituzten subjektuak.
11. artikulua. Zarata mapen norainokoa.
12. artikulua. Zarata mapak onesteko prozedura.

- 13. artikulua. Zarata mapen publizitatea.
- 14. artikulua. Lankidetza eta desadostasunak konpontzea zarata mapetan.
- 15. artikulua. Zarata mapen berrikuspena.

II. KAPITULUA. Ekintza planak

- 16. artikulua. Ekintza planak nahitaez egin behar dituzten subjektuak.
- 17. artikulua. Ekintza planen norainokoa.
- 18. artikulua. Ekintza planak onesteko prozedura.
- 19. artikulua. Ekintza planen publizitatea.

II. TITULUA: ZONIFIKAZIO AKUSTIKOA ETA ZORTASUN AKUSTIKOA 12/12j

I. KAPITULUA. Zonifikazio akustikoa

- 20. artikulua: Eremu akustikoen tipologia.
- 21. artikulua: Zonifikazio akustikoaren irizpideak.
- 22. artikulua: Lurraldeko beste zona batzuk.
- 23. artikulua: Zonifikazioaren aldaketa.
- 24. artikulua: Zonifikazioaren bateragarritasuna.
- 25. artikulua. Landa-guneen zonifikazio akustikoa.
- 26. artikulua: g motako eremu akustikoen sailkapena.
- 27. artikulua. g motako eremu akustikoak eta jatorri naturaleko zarata erre-serbak adierazteko prozedura.

II. KAPITULUA. Azpiegitura autonomikoen zortasun akustikoko zonak

- 28. artikulua. Zortasun akustikoko zonak zedarritzea.
- 29. artikulua. Zortasun akustikoko zonak onestea.
- 30. artikulua. Azpiegitura autonomikoen zortasun akustikoko zonaren ondorioak.

III. TITULUA. KALITATE AKUSTIKOAREN HELBURUAK ETA INMISIOAREN MUGAKO BALIOAK

I. KAPITULUA. Kalitate akustikoaren helburuak

- 31. artikulua. Kalitate helburuko balioak eremu urbanizatueterako eta geroko garapeneterako.
- 32. artikulua. Kalitate helburuko balioak g motako eremuetarako.
- 33. artikulua. Kalitate helburuko balioak zarata naturaleko erreserbetarako.
- 34. artikulua. Kalitate helburuko balioak hiriko zona lasaietarako.
- 35. artikulua. Helburuak betetzen direla egiaztatzekeo prozedura.

II. KAPITULUA. Hirigintzako geroko garapena

- 36. artikulua. Hirigintzako geroko garapena.
- 37. artikulua. Hirigintzako geroko garapeneko eremuetarako eskakizunak.
- 38. artikulua. Zarata-iturrien azterketa.
- 39. artikulua. Aukeren azterlanak.
- 40. artikulua. Neurriak zehaztea.
- 41. artikulua. Legea zati batez ez betetzea hirigintzako geroko garapenean.
- 42. artikulua. Dardaren ebaluazioa hirigintzako geroko garapenean.
- 43. artikulua. Eraikuntza berriei aplikatu beharreko eskakizunak.
- 44. artikulua. Salbuespenezko baimenak.

III. KAPITULUA. Babes Akustiko Bereziko Zonak, Egoera Akustiko Bereziko Zona eta Lehentasunezko Jarduketa Zonak eta horiekin lotutako planak

- 45. artikulua. Babes Akustiko Bereziko Zonaren adierazpena (BABZ)
- 46. artikulua. Zonako planen norainokoa.
- 47. artikulua. Zonako planen xedea.
- 48. artikulua. Zonako planen koordinazioa.
- 49. artikulua. Lehentasunezko Jarduketa Zona eta Lehentasunezko Jarduketa Plana.
- 50. artikulua. Lehentasunezko Jarduketa Planaren edukia.

IV. KAPITULUA. Isurpen foku akustiko berriak

- 51. artikulua. Isurpen foku akustiko berriei aplikatu beharreko mugako balioak.

- 52. artikulua. Mugako balioak betetzen direla egiaztatzeko prozedura.
- 53. artikulua. Mugako balioak betetzen direla egiaztatzea.
- 54. artikulua. Isurpen foku akustiko berriei aplikatu beharreko zuzenketa neurriak zehazteko irizpideak.
- 55. artikulua. Hiriko bide berrietan aplikatu beharreko eskakizunak.

Azkenik, sei xedapen gehigarri, bi iragankor, indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen ditu, baita eranskinen multzo bat ere.

Aurretiatzko tituluko I. Kapituluko Xedapen Orokorretan, dekretu honek autonomia edo foru eskumeneko isurpen foku akustikoetan duen xedea eta aplikazio eremua ezarri du, estatuaren eskumeneko azpiegiturak eta lan jarduera alde batera utzita.

12/12

2. artikuluan, araudi berezia ezarri da egungo azpiegituretarako eta azpiegitura berrietarako.

3. artikuluan, zenbait definizio bildu dira. Zehazkiago, hauexek definitzen dira: udalez gaindiko esparru metaketa, eremu akustikoa, kutsadura akustikorako eraikuntza sentikorra, geroko garapena, isurpen indizea, zarata mapa, neurri osagarriak, eraikuntza berria, ekintza plana, lehentasunezko jarduketa plana, zaintza akustikoko plana, zonako plan akustikoa, jatorri naturaleko zarata erreserba, dardara egonkorra, dardara iragankorra, Lehentasunezko Jarduketa Zona (LJZ), Babes Akustiko Bereziko Zona (BABZ), Azpiegitura autonomikoko zortasun akustikoko zona, Egoera Akustiko Bereziko Zona (EABZ), trantsizo akustikoko zona, zona lasaia eremu zabalean edo g motako eremua, hiriko zona lasaia.

Eskumenen banaketari buruzko xedapenekin dago osatuta titulua: EAEko organo erkideak, foru aldundiak eta udalerrriak eta administrazio koordinazioa; beren-beregi arautzen da herritarrek zarataren arloan informazioa jasotzeko duten eskubidea.

Garrantzi berezia du 7. artikuluan Euskadiko Ebaluazio Akustikoaren Batzorde Teknikoa sortzeak; izan ere, administrazioen arteko koordinazio foroa izatea nahi da, Dekretu honen aplikazioan eraginkortasun irizpideak

ezarri ahal izateko, baita hemen araupeturiko manuen aplikazioan izan daitezkeen desadostasunak konpontzeko.

I. Titulua, Ebaluazio akustikoari buruzkoa, bi kapitulutan dago banatuta: *I Zarata mapak eta II Ekintza planak.*

Titulu horretan, Dekretu hau aplikatzeko eremuan zarata mapak nahitaez egin behar dituzten subjektuak identifikatzen dira. Zehazkiago, berezita ezarri dira betebeharrak udalerrientzat biztanleria handiagoaren edo txikiagoaren eta horiekin lotutako zerbitzuen arabera.

12/12*j*

Zarata mapak eta ekintza planak egiteko prozedura ezarri da, baita gutxieneko edukia ere.

Babes Akustiko Bereziko Zonatzat hartutako zonak direnean eta kalitate akustikoaren helburuak bete ez direla ikusten denean, zonako plana garatu beharra aurreikusten da, hain zuzen ere helburu horiek zentzuzko denboran betetzea ahalbidetuko duten jarduketa eta neurri nahikoak sortzeko modua zehazteko.

II. Titulua zonifikazio akustikoari eta zortasun akustikoari buruzkoa da.

I. kapituluan: Zonifikazio akustikoa. Zonifikazio akustikoari buruzko manuak garatzen dira, eta zehazkiago, g motako eremuak zehaztu eta tipologia akustiko bakoitzarekin lotutako kalitate akustikoko helburuak definitzen dira. Halaber, zonifikazioa kudeatzeko zenbait tresna mugatzeko irizpideak zehazten dira hala nola jatorri naturaleko zarata erreserbak, trantsizio zona eta zona lasaiak. Hirigintzako udal plangintzan aurreikusitako erabileren edo egungo lurren erabilera nagusien arabera egingo da zonifikazio akustikoa.

II. kapituluan: zortasun akustikoa. Autonomia edo foru eskumeneko azpiegituretarako zortasun akustikoko zonak mugatzeko irizpideak eta mugaketa horren ondorioak ezarri dira. Hori dela-eta, nahitaez jakinarazi behar zaio zortasunaren pertsona edo erakunde titularrari hirigintzako geroko garapena, zertarako-eta bertan ezarritako kalitate akustikoko helburuak betetzen direla zaintzeko. Halaber, lurraldeko sektore bat eremu akustiko

mota batean sartzea erabakitzeko irizpideak ezarri ditu 3. Eranskinak.

III. titulua lau kapitulutan dago banatuta. **I. kapituluan, kalitate akustikoko helburuak** eta **helburuok betetzen direla egiaztatzeko prozedura ezarri dira**. **II. kapitulua hirigintzako geroko garapenei** buruzkoa da, eta bertan ezarri da ezin izango dela hirigintzako geroko garapenik egin kanpoko giroko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan. **III. kapituluan Babes Akustiko Bereziko Zonen, Egoera Akustiko Bereziko Zonaren eta Lehentasunezko Jarduketa Zonen** adierazpena jorratzen da, eta aldi berean, horrekin **lotutako planak** araupetzen ditu. Eta **IV. Kapitulua: Isurpen foku akustiko berriak**. Isurpenaren mugako balioak ezarri dira, baita horiek egiaztatzeko prozedurak ere. Prozeduron araupetzea 1 eta 2. eranskinetan osatzen da.

12/12j

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Udalek izango duten epea ezarri du **lehenbizikoak**. Horretarako, Dekretu hau indarrean sartzean, zaratari buruzko udal ordenantzak izan behar dituzte udalek, espezifikoa edo ez, egokituak izan daitezten (2 urte).

Bigarrenak 4 urteko epea ezarri du 10.000 biztanletik gorako udalerriek eta garraio azpiegituren pertsona edo erakunde titularrek zarata mapa egin dezaten.

Hirugarrenak 4 urteko epea ezarri du administrazio eskudunak g motako eremuak zedarritu ditzan, baita babestutakotzat jotako natur gunetan kokaturiko jatorri naturaleko zarata erreserbak ere.

Laugarrenak 2 urteko epea ezarri du 10. artikuluko zarata mapa egiteko zehazturiko beharkizunak betetzen dituzten azpiegituren zortasun akustikoko zona zedarritzeko, baita Zaratari buruzko azaroaren 37/2003 Legea garatzen duen abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuko 8. artikuluan araupeturiko zarata mapa estrategikoak egin behar dituzten azpiegiturak ere.

Bosgarrenak ezarritakoaren arabera, ingurumenaren arloan eskumena duten udalek eta administrazioek ingurumen lankidetzako erakundeak erabili ahal

izango dituzte.

Seigarrenean, berriz, hauxe ezarri da: tokiko administrazioek egoitzako hiri lurzoruko jardueretan eguneko epealdiak eta ordutegiak aldatzeko ahalmena izango dute, hain zuzen ebaluazio indize akustikoek definitzen dituzten epealdiak, betiere gauez gutxienez 23:00etatik 07:00etarako aldia betetzen badute; gehienez 2 orduz luza daiteke.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoak ezarritakoaren arabera, harik eta egokitzapenak egin arte, Dekretu honetan ezarritako eskakizunak aplikatuko dira, betiere udal ordenantzek berek dakartzatenak baino maila handiagokoak edo zorrotzagoak badira.

Bigarrean, berriz, honako hau ezarri da: udal-mugarte baten zonifikazio akustikoa ezarri arte, zonako erabilera nagusiak mugatuko dituela eremu akustikoak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe utzi du egoitzako hiri lurzoruan finkatu beharreko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei oro har aplikatu beharreko arau teknikoak onetsi dituen ekainaren 11ko 171/1985 Dekretua, Dekretu honetan xedatu denaren kontrako alderdian.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoak ahalmena ematen dio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari urtebeteko epearen barruan Dekretu hau aplikatzeko gidak egin ditzan Ingurumen Eraginaren Ebaluazioaren eta Ingurumen Balio Integratuen prozeduretan. Aldi berean, arauen garapena ere jorratzen du.

Bigarrenak ahalmena ematen dio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari Kutsadura Akustikoaren organo aholku-

emailea garatzeko.

Hirugarrena Dekretua indarrean sartzeari buruzkoa da.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: Kalitate akustikoko helburuak eta mugako balioak isurpen foku akustiko berrietarako

1. zatia: Kalitate akustikoko helburuak
2. zatia. Isurpen foku akustiko berriei aplikatu beharreko mugako balioak.

II. ERANSKINA: Indize akustikoak ebaluatzeko prozedurak

1. zatia: Indize akustikoen definizioa
2. zatia: Indize akustikoak ebaluatzeko prozedurak
 - A. Zarata indizeetarako ebaluazio metodoak.
 - B. Dardara indizeetarako ebaluazio metodoak.

III. ERANSKINA: Lurraldeko sektore bat eremu akustiko mota batean sartzea erabakitzeko irizpideak

1. Eremu akustikoak esleitzea.
2. Eremu akustikoak mugatzeko irizpideak.
3. Eremu akustiko horiekin lotutako erabilera nagusiak ezartzeko irizpeak.
 - a) motako eremu akustikoak. – Egoitza erabilera lurralde sektoreak.
 - b) motako eremu akustikoak. – Industri erabilera lurralde sektoreak.
 - c) motako eremu akustikoak.- Jolas erabilera eta ikuskizunen erabilera nagusia duten lurralde sektoreak.
 - d) motako eremu akustikoak.- c) epigrafearen barruan sartu ez diren hirugarren sektoreko jarduerak.
 - e) motako eremu akustikoak.- Kutsadura akustikoaren kontrako

babes berezia behar duten osasun, hezkuntza eta kulturako erabileretarako lurraldeko zonak.

f) motako eremu akustikoak.- Garraio azpiegituren sistema orokorreari eta behar duten beste ekipamendu publikoei lotutako lurralde sektoreak.

g) motako eremu akustikoak. Babes berezia behar duten natur guneak.

III.- OHARBIDEAK

III.1 Oharbide orokorrak

12/12*j*

Irizpen honen II. epigrafeak dakarrenez, giroko zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko ekainaren 25ean emandako 2002/49/EE Zuzentaraua ezartzeak kutsadura akustikoaren kontzeptu berria ekarri zuen, eta berebiziko garrantzia hartu du giroko zaratak. Eta ikuspegi hori Estatuko ordenamendu juridikora ekarri zen Zarataren buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen, lege hori giroko zarataren ebaluazioaren eta kudeaketaren aldetik garatzen duen abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuaren eta legea zonifikazio akustikoaren, kalitate helburuen eta igorpen akustikoen aldetik garatu duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren bidez.

Nahiz eta ingurumenaren babesari buruzko oinarrizko legeria emateko eskumen eksklusiboa Estatuari dagokion, autonomia erkidegoek ahalmenak dituzte babes neurri gehigarriak ezartzeko.

Bestela esanda, EA Eren eskumen propioei esparru juridikoa ematea da kontua kutsadura akustikoari dagokionez. Hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren otsailaren 27ko 3/1998 Legean (hain zuzen ere 32, 35 eta 37. artikuluetan) bildutako araudi autonomikoa eta estatu legeria osatzea ahalbidetzen duten alderdiak eta prozedurak zehaztu dira.

Horregatik, Batzorde honek balorazio ona egiten du aurkeztu zaigun ekimenaren inguruan, zeren eta lege testu horren bidez bete egiten baita Zarataren buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatu duen urriaren 19ko

1367/2007 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriak dakarrena, zonifikazio akustikoari, kalitate helburuei eta isurpen akustikoei dagokienez, autonomia eta tokiko eskumenek azpiegiturak ezarrita.

Laugarren xedapen gehigarria. Autonomia eta tokiko eskumeneko azpiegiturak.

Autonomia edo tokiko eskumeneko azpiegiturei dagokienez, autonomia erkidegoek zehaztuko dituzte honako hauek aplikatzeko epeak eta baldintzak:

- *Aurretik dauden azpiegituretarako 14.1. artikuluan ezarritako kalitate akustikoko helburuak II. eranskinarekiko.*
- *Azpiegitura berrietarako 23. artikuluan ezarritako inmisioko mugako balioak III. Eranskinarekiko.*

12/12j

Halaber, atsegin zaigu ikustea gure irizpenpean jarritako agiriak testu-lege bakarrean barnebiltzen dituela bi arautegiek dakartzaten aurreikuspenak, baita prebentzioa lehentasunezkoztat jotzea ere, ez zuzenketa soilik. Izan ere, estatuko araudian ez da hala: 2 arautegi daude (Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua eta abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretua).

Hori esanda, gure ustez komenigarria da adieraztea proposaturiko testuak ez dakarrela arau-hauste eta zehapenen araubiderik eta, beraz, beren-beregi aipatu behar da estatuko araudia bete behar dela.

III.2 Oharbide espezifikoak

Zioen azalpena

Zioen Azalpenetan, giroko zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko ekainaren 25ean emandako 2002/49/EE Zuzentaraua ematen da, baina ez Munduko Osasunaren Erakundeak eginiko eta Zuzentarau horretan bildutako gomendioen gaineko aipamenik.

Horregatik, honako paragrafo hau sartzea proposatzen dugu:

“Zuzentarau honek Munduko Osasunaren Erakundearen ondorioak dakartza; izan ere, erakunde horrek adierazitakoaren arabera, kutsadura akustikoa ez da soilik ingurumen eragozpena, baizik eta osasun publikorako arriskua ere bada”.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

2. idatz-zatian, ondoren agertzen dena gehitzea gomendatzen dugu:

“2. Dekretu honen xedapenen menpe gelditzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden isurpen foku akustiko **publiko edo pribatu** hauek:
...”

12/12j

Halaxe da zeren Dekretu honek jarduera guztiak araupetzen baititu, publikoak izan nahiz pribatuak izan, eta hori beren-beregi jaso behar da lege testuan.

2. artikulua. Azpiegiturak eta jarduera berriak

1. idatz-zatian, hauxe gehitzea gomendatzen dugu:

1. Honako Dekretu honen ondorioetarako, azpiegitura berria deritzo Dekretu hau indarrean sartzean proiektua onetsita ez duen eta ondoko kasu hauetako baten barruan dagoen **bide, trenbide edo portuko** azpiegiturako edota azpiegiturako zatiari:

3. artikulua. Definizioak

2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako definizio hauek gehitzea proposatzen dugu:

- **Jarduerak:** edozein eratako industri, merkataritza, zerbitzu edo biltegiatze instalazio, establezimendu edo jarduera publiko nahiz pribatu.
- **Eragozpena:** Zaratak edo dardarek herritarrei eragindako edozein eragozpen.

4. artikulua. EAEko organo erkideen eskumenak

Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 estatu legearen 5.2. artikuluan, hau ezarri da:

“Esku artean duen informazioa eta gainerako herri administrazioek emandakoa oinarri hartuta, Estatuaren Administrazio Orokorrak kutsadura akustikoari buruzko oinarrizko informazio sistema sortuko du, eta bertan txertatuko dira informazio sisteman osagai garrantzitsuenak, inmisio indizeak, herritarrek jasaten duten kutsadura akustikoa eta teknika eskuragarri onenak barne direla”.

Gure aburuz, lankidetzarako edo informazio hori jakinarazteko organoa egon behar da, eta erakundeen arteko koordinazioa bideratzea organo erkideei dagokienez gero, lankidetzara horretarako eskumen handienak dituzte.

Horregatik, hauxe dioen p) idatz-zatia gehitzea gomendatzen dugu:

p): Lankidetzan aritzea estatuko kutsadura akustikoari buruzko informazioaren oinarrizko sistemarekin.

7. artikulua. Administrazio koordinazioa

4. idatz-zatian, gure ustez komenigarria da paragrafoa honela hastea “Eusko Jaurlaritzak...”, hots, “Hala ere” kentzea.

4. ~~Hala ere~~, Eusko Jaurlaritzak nahiz foru aldundiek eta udalek zaindu egingo dute Dekretu honetako preskripzioen aplikazio koordinatua egiten dela, baita Dekretuaren ondoriozko neurriak ahalik eta modurik eraginkorrean sortu eta betearazten direla ere.

8. artikulua. Herritarrek informazioa jasotzeko duten eskubidea

Bigarren idatz-zatiari dagokionez, gure ustez:

- Lehenik eta behin, gure ustez komenigarria da definitzea zeri deritzon “ahalik eta zabalena”.

- Bestalde, nahiz eta proposaturiko testuan plangintza eta kudeaketa akustikoaren hedapen zabala ezarri, alderdirik garrantzitsuenak azpimarratu behar dira hala nola zarata mapak (erabakiak hartzea eta eremuak zehaztea dakarrena), ekintza planak (hartu beharreko neurriengatik) eta babes akustiko berezien zonak (salbuespena dakartelako). Horregatik, letra lodiz agertzen dena gehitzea proposatzen dugu.

2. Dekretu honen esparruan eginiko plangintza eta kudeaketa akustikoaren gaineko publizitatea eta hedapena ahalik eta modurik zabalenean egin beharko da, herritar guztiengana iristeko eta ulergarria izan dakien. **Bereziki, zarata mapei, ekintza planei eta babes akustiko bereziko zonei buruzko datuak emango dira jendaurrean.**

12/12j

11. artikulua. Zarata mapen norainokoa

Artikuluak zarata planen norainokoa definitzen duenez gero, horren xede nagusiak eta, beraz, norainokoak eman beharko ditu kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren lehentasunezko jarduketa zonak. Horregatik, 1. idatz-zatian hau dioen hirugarren lerroaldea gehitzea gomendatzen dugu:

Nolanahi ere, lehentasunezko jarduketa zonen mugaketa eman beharko du zarata mapak.

12. artikulua. Zarata mapak onesteko prozedura

Hauxe dio lehen idatz-zatiak:

1. *10. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen diren isurpen foku akustikoen pertsona edo erakunde titularrek, zarata mapak egiten badituzte, ebaluazio akustikoaren emaitzak bidali beharko dizkiete iragarkia isurpen horiek ukitutako lurraldeetako udalei, jendaurrean jartzeko izapidea baino lehen. Udalek, 30 lan-eguneko epean, egokituz jotzen dituzten oharbideak dakartzan txostena bidali beharko dute.*

Azpimarratutako hitzaz ohartarazi nahi dugu; izan ere, geure buruari

galdetzen diogu zer ulertuko den txosten hori bidali ezean. Hots, ados egongo dira edo ez?

15. artikulua. Zarata mapen berrikuspena eta aldarazpena

Lehenik eta behin, artikuluaeren tituluan gehitu dena nabarmendu nahi dugu: “**eta aldarazpena**”.

Bigarrenik, 1. idatz-zatian hauxe gehitzea komeni dela deritzogu:

1. Berrikusi egingo dira 10. artikuluan aipaturiko zarata mapak, eta **egoki bada**, mapa horiek egiteko eskumena duen administrazioak kasu bakoitzean egoki irizitako datan eta aldizkakotasunarekin **aldatuko dira**. Alabaina, inoiz ez da 5 urtetik gorako epea izango zarata mapa onetsi eta berrikusi artean.

Halaxe da, zeren hura aldatzea komeni izateko inguruabarrak izan baitaitezke, eta hori ez da proposaturiko testuan jaso.

18. artikulua. Ekintza planak onesteko prozedura

2. idatz-zatian “non jendeak” barik “zertarako-eta jendeak” jartzea.

2. Ekintza planak egiteko prozesuan, bermatu egingo da jendeak parte hartzeko prozesua dela, informazioa jasotzeko, jendeak parte hartzeko eta ingurumenaren arloko justizia eskuratzeko eskubideen gaineko araudian ezarritakoarekin bat etorriz, ~~non~~ **zertarako-eta** jendeak horren gaineko oharrak eta iritzia eman ahal izateko.

29. artikulua. Zortasun akustikoko zonak onestea

3. idatz-zatian, honela idaztea gomendatzen dugu:

3. Denbora mugagabeen izango da indarrean zortasun akustikoko zonaren mugaketak. Azpiegituren pertsona edo erakunde titularrak aldatu ahal izango du soilik azpiegiturek zarata sortzeko **ahalmena** nabarmen handitzeko edo murrizteko arrazoiak bidezkoak edo justifikatzen direnean. **Halaber**,

zonarekin lotutako mugak berrikusi ahal izango dira berrikuspen prozesuan.

Idazketa berria egin beharko litzateke, zeren eta, dirudienez, hauxe adierazten baitu legeak: aldaketa egin ahal izango duela pertsona edo erakunde titularrak justifikaturiko edozein zarata handitzeren edo murrizpenen aurrean. Gure ustez, nolabaiteko segurtasun juridikoari begira, zarata maila jakin bat aintzatetsi behar da aldaketa egin ahal izateko. Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatu duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua, zonifikazio akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei dagokienez.

12/12*j*

“2. Zortasun akustikoen mugaketa berrikusi beharko da azpiegiturretan aldaketa nabarmenak gertatzen direnean eta horien ondorioz zortasun horien inguruko zarata mailetan aldaketa nabarmenak gauzatzen direnean.”

Aldi berean, aldaketa gertatuz gero, horrek ere balizko mugaketak aldatzeko modua eman beharko du berrikuspen motaren arabera.

30. artikulua. Azpiegitura autonomikoen zortasun akustikoko zonaren ondorioak

2. idatz-zatian, erredundantea da idatzitakoa eta, beraz, aldaketa hauek egin beharko lirakeela deritzogu:

2. Zortasun akustikoko zona baten barruan geroko garapena sustatzen duten pertsonak edo erakundeek 37. artikuluan aipaturiko zarataren eraginari buruzko azterlan bat egin beharko dute. Kasu honetan, administrazio sustatzailearen erantzukizuna da hirigintza garapenaren eremuko prebentzio akustikoko neurriak zehaztea, eta agertokiko jakin batean ebaluatuko dira: azpiegituran 20 urteko epemugan aurreikusitako ~~trafiko~~ egoera egokienak aintzat hatzen diren agertokian, betiere egungo ~~trafiko~~ egoera kontuan izanik. Horretarako, informazioa eskatuko zaio azpiegituraren pertsona edo erakunde titularrari.

Bestalde, 4. idatz-zatia dela-eta, hauxe gehitzea proposatzen dugu:

4. Zortasun akustikoko zonak hirigintza plangintzako tresnetan sartuko dira. **Lurzoruaren aldaketak dakartzaten aldaketak jasotzen dituzten hirigintzako plangintzen aldaketek eta berrikuspenek berekin dakarte zortasun akustikoa berrikusi beharra.**

53. artikulua. Mugako balioak betetzen direla egiaztatzea

1. idatz-zatian, hauxe gehitzea gomendatzen dugu:

1. Lizentzia eta baimena lortzeko eta egiaztapena egiteko... egiaztaturik dagoen eta **ahalmen teknikoa egokia** duen erakunde batek emandako txostena aurkeztu beharko du, honako honen I. eranskineko G eta I tauletako balioak betetzen direla egiaztatzeko..”

12/12j

Eta hori guztia urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 31. artikuluan xedatu dena betetzeko.

“31. artikulua. Ebaluazioa egiten duten erakundeak.

Kutsadura akustikoa ebaluatzeko prozesuetan lorturiko emaitzak homogeneoak eta konparagarriak izan daitezen, ebaluazio horiek egiteko arduraren erakundeek ahalmen tekniko egokia dutela zainduko dute administrazio eskudunek. Halaber, errege dekretu honetan ebaluazio akustikoetarako ezarritako ebaluazio metodoak eta prozedurak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzeko kontrol sistemak ezartzen direla zainduko dute.”

55. artikulua berria gehitzea

Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 31. artikuluan xedatu dena betetz, 55. artikulua gehitzea gomendatzen dugu: “arau-haustek eta zehapenak” izeneko eta testu hau izango duena:

55. artikulua.- Arau-haustek eta zehapenak

Zaritari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen IV. Kapituluaren ezarritakoaren bidez arautuko dira arau-haustek eta zehapenak.

Kontuan hartu beharreko bestelako alderdi batzuk eta ortografia akatsak

- 5. orrialdea. Lehen lerroaldearen amaiera: 2011 barik 2012 jartzea.
- 4, 5 eta 6. artikulua. Estilo berari eustea: aditza infinitiboan edo artikulua eta substantibo batekin hasita.
- Ortografia akatsak:
 - o 2.4.b) artikulua, gaztelaniazko “de” preposizioa kendu “generar de ruido”.
 - o 16.2. artikulua: gaztelaniazko “la” artikulua falta da “Viceconsejería” substantiboaren aurretik.
 - o 20.f) artikulua: sobera dago “o” bokala testuaren amaieran.
 - o 41. artikulua: gaztelaniazko “se verificase” egokiagoa litzateke “se verifica”.

12/12j

IV.- ONDORIOA

Euskadiko EGABek egokitzat jotzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren kutsadura akustikoaren Dekretu Proiektuaren gaineko izapidetzea, erakunde aholku-emaile honek dituen oharbideekin.

Bilbon, 2012ko ekainaren 29an

Presidentea O.E.
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao, Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1283-12